

KOADRILA BERDEA

SALBURUA IKASTETXEA

IKASTETXEKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLE GUZTIAK: 358
IKASLE

IRAKASLEAK:

Enrike Arnaiz eta Mikel Goikuria



PROIEKTUAREN GARAPENA

- Proiektuari hasiera apirilean eman genion eta hurrengo taulan agertzen den plangintza diseinatu genuen. Atsedendian ikasleak bikote edo hirukoteka elkartu eta eremu ezberdinetan jartzen ditugu arduradun. Nagusiak ikasle txikien bila joaten dira beraien geletara 10:55tan. Beraien funtzioa da beste ikasleei gogoraraztea zaborra non bota. Horretarako bikote bakoitzari kontenedorea eta petoak ematen zaizkio.
- Patioa bukatzean jasotakoaz “0 zabor” dioen mural handi bat osatzen doaz zaborra bertan itsatsiz.
- Gainera, jasotako zaborra pisatzen da eta taula batean pisua apuntatzen da.
- Horrez gain, Eskulanetarako baliaogarri iruditzen zaigun zaborra geletan jarri ditugun kaxa handi batzutan sartzen ditugu plastika arloan erabiltzeko.

3 EREMUAK:

- 5. MAILAKOEI DAGOKIE **FUTBOL ZELAIA + BADMINTON**
- 4. MAILAKOEI **FRONTOIA**
- 3. MAILAKOEI **SARRERA + BANKUEN EREMUA**

	ASTELEHEN A	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1go eremua: Futbol zelaia + badminton	5A + 1A- 1B	5B + 1C	5A + 1A- 1B	5B + 1C	5A + 1A-1B
2. eremua: Frontoia	4A + 2A- 2B	4B + 2C- 2D	4A + 2A- 2B	4B + 2C-2D	4A + 2A-2B
3. eremua: sarrera + bankuen	3A + 3D	3B + 3C	3A + 3D	3B + 3C	3A + 3D

EZARRITAKO HELBURUAK BETETZEA.

- Egunero botatzen ditugun zabor kantitateez kontzientziatuago dago eskolako komunitatea zabor kantitateak pisatu eta aztertzen direnetik.
- Patioaren garbitasunari dagokionez, lehen atezainaren lana zenaren ardura ikaslegoak hartu du.
- Birziklatutako materialak arte bihurtu ditugu, sormenari bidea eginez eta berrerabilpenaren kultura sustatuz.
- Ingurugiroan dugun eraginaz hausnartzeko aukera ematen du proiektuak.

Azken ondorioak eta proiektua bukatu ondoren iraunarazteko proposamena.

- Oro har, positibotzat jotzen dugu proiektua eskola komunitatean eragina izan duelako eta ikasleengan kontzientzia ekologikoa barneratzen laguntzen duelako.
- Berrerabilpenaren inguruko lanketak bidea irekitzen du, etxeetan ere praktika hau aurrera eramateko.
- Ikastetxeko proiektu bezala integratu eta urteroko jarraipena emango diogu ikastetxeko partaide guztien inplikazioa bultzatuz.



SALBURUAKO

KOADRILA BERDEA